

# BALIOKO PROPOSAMENA

Enpresa guztiek duten moduan gure enpresak ere balioa du. Balio horri esker gure enpresa kompetentziatik bereizten da. Gure enpresaren balioa nahiko zabala da, hau da, enpresa osatzen duten faktore guztietan dago eta ez bakarrik produktuan. Balioa honela dago banatuta gure enpresan:

1. Koltxoia berotu egiten da, hori enpresa askok egiten dute, baina, gure koltxoia merkatuan dauden beste produktuetatik bereizteko ere hozten da.
2. Pertsonalizazio eta tamaina askotako ohe eta koltxoiak ditugu.
3. Ohea pertsonalizatzeko eskaintza oso zabala da: Ohea erosterakoan dohainik ematen dizkizugun izarak zuk nahi duzun marrazki, kolore... pertsonaliza ditzakezu; argiak gehitu ahal zaio oheari; bozgorailuak gehitu ahal zaizkio ohearia; masajeak egin ahal izateko aukera jarri daiteke koltxoian.
4. Ohea erosi baino lehen enpresak dituen barneko diseinatzaile bat zure etxera joango da inolako kosturik sortu gabe. Honek ohe modelo erosterakoan aholkatuko dizu, zure gelan hoberen geratuko liratekeen modeloak azalduz eta bakoitzaren abantailak azalduz.
5. Koltxoian arazoren bat badago sistema elektrikoan, hau da, ohea hoztu edo berotzeko sistema elektrikoan edo masajeak emateko sistema elektrikoan, bi egun baino lehenago teknikaria bidaliko dugu arazoa konpontzeko, beranduago iristen bada gure enpresan egiten duzun hurrengo erosketan merkealdi bat izango duzu. Merkealdi hori ere izateko aukera izango duzu arazoa ohean badago, hau da, bozgorailu sisteman edo iluminazio sisteman.
6. 5 urteko garantia ematen dugu sistema elektrikoan, hau da, ohea berotu eta hozteko sisteman, iluminazioan... 5 urte pasa ondoren arazoren bat baldin baduzu sistema horietan teknikarien bisitak kostu bat izango lukete.